

# Botere Judizialaren Lege Organikoa

## 73. artikulua

1. Auzitegi Nagusiaren barruan, Arlo Zibil eta Penaleko Salaren eskumenekoak izango dira, Arlo Zibileko Sala gisa:

a. Kasazio-errekurtsoa, hori lege-aginduz ezarrita dagoenean, esparru zibileko jurisdikzio-organoek emandako ebazpenen kontra; organo horiek autonomia-erkidegoan izan behar dute egoitza, errekurtsoaren oinarria izan behar da autonomia-erkidego horretako foru-zuzenbide zibilaren nahiz zuzenbide zibil bereziaren arauak hautsi izana, eta kasuan kasuko autonomia-estatutuak eskumen hori ezarrita izan behar du.

b. Berrikuspenerako errekurtso berezia, hori lege-aginduz ezarrita dagoenean, esparru zibileko jurisdikzio-organoek emandako epaien kontra; organo horiek autonomia-erkidegoan izan behar dute egoitza, epaiak eman behar izan dira autonomia-erkidegoaren berezko foru-zuzenbide zibilaren nahiz zuzenbide zibil bereziaren esparruan, eta kasuan kasuko autonomia-estatutuak eskumen hori ezarrita izan behar du.

[...]

## 330. artikulua

[...]

4. Auzitegi Nagusien kasuan, Arlo Zibil eta Penaleko saletan, hiru plazetatik bat beteko du ospe handiko legelarietatik batek. Nahitaezkoa da legelari horrek 10 urtetik gorako lanbide-esperientzia izatea autonomia-erkidego horretan; autonomia-erkidegoko biltzar legegileak hirukotea aurkeztuko du, eta, hiru horien artean, izendapenerako proposamena egingo du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak. Gainerako plazak magistratuek beteko dituzte. Magistratu horiek 10 urteko esperientzia izan behar dute, kategoria horretan eta jurisdikzio zibil nahiz penalean, eta, horrez gain, jakite bereziak izan behar dituzte, autonomia-erkidegoaren berezko foru-zuzenbide zibilari edo zuzenbide zibil bereziari buruz; horien kasuan ere, izendapenerako proposamena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egingo du.

[...]